

TRUKEAN ZERBAIT UTZITA

Agian zuetako batzuk konturatu zarete Ezkion, Itsason eta inguruetan neska-mutil ilehori begi-urdirin asko daudela. Ez dago ziur jakiterik zein ote den fenomeno horren arrazoa; baina niri, aspaldi, bertako andre zahar batek taxuzko azalpen bat eman zidan, eta nik erositako prezioan kontatuko dizuet. Jakin nahi?

Diotenez, Niklaus Müller izeneko mutila Metz hirian jaio zen 1772. urtean (gutxi gorabehera). Metz hori Lorrena eskualdeko hiriburua da, eta betidanik izan da gune industrial, non ez diren falta zarata, kea, hautsa, zikinkeria eta jende askoren joan-etorri urduria. Besterik ez eta, Niklausek meategi batean lan egiten zuen gaztetatik; amarik ez zuen, urte batzuk lehenago hila baitzen, eta aitarekin, egia esanda, ez zen ondo konpontzen...

Niklausek 20 bat urte zituelarik, eraldaketa handiak gertatu ziren Frantzian. Hala, erresuma izatetik, errepublika izatera igaro zen, eta gobernu berriari “Konbentzioa” esaten zioten, auskalo zergatik. Edonola ere, Europako beste erreinuei (batez ere Espainiakoari, mugakideak ziren-eta) ez zitzaien batere gustatu “iraultza” hura, eta gerra hasi zuten. Gerra haren izena? Erraza da, gero: Konbentzioaren Gerra.

Orduan, Frantzia osoan “levée en masse” antolatu zen: errekrutatze masiboa. Alegia, agintariak boluntario bila hasi ziren, gudu-zelaietara bidaltzeko. Gure Niklausek pentsatu zuen hura aski aukera ona izan zitekeela bestelako toki eta paisaiak ezagutzeko eta esperientzia berriak bizi izateko, eta izena eman zuen Frantziako armadan. Artean, ez zekien gerrak ondorio bakarra duela beti: oinazea.

Laster, Euskal Herrira bidali zuten Niklausen batailoia, Lapurdira, handik Bidasoa ibaia zeharkatu beharko zutelako. Pirinioak ikusi bezain laster, Niklaus harrituta geratu zen bertako toki ederrengatik: mendi eta muinoak, baso eta baratzeak, errekek eta landak... Den-dena iruditzen zitzaion polita: zeruaren urdin distiratsutik, zuhaitz eta landareen mila berde-motetaraino. Metz zulo ilun hura ahaztu zuen ia guztiz, eta euskal lurraldeak maitatzen hasi zen.

1794ko otsailean, Moncey jeneralaren agindupean, tropa frantsesak Gipuzkoara sartu ziren. Hasieran, dena joan zitzaien erraz: Espainiarrak baino gehiago ziren, jendez zein armamentuz, eta lurraldea esfortzu handirik gabe hasi ziren bereganatzen; hala, hilabete gutxi batzuetan, ia probintzia osoa zuten beren esku, hiriburua barne. Egoera larria ikusita, Gipuzkoako udalerrien ordezkariak presaka batu eta honako erabaki historiko hau hartu zuten: Gipuzkoak bere independentzia aldarrikatuko zuen, eta ondoren Frantziako Errepublikarekin negoziatuko zuen bake-itun egokia. Frantziarrek, ordea, ezikusiarrena eta ezentzunarena egin zuten.

Urte bereko neguan, gauzak okertzen hasi ziren nabarmen: gerra hark gosea eta hildakoak ekarri zituen, ohi bezala; goseari, laster, eritasunak batu zitzaizkion: larriena, tifusa. Niklaus gainontzeko soldaduekin bizi zen, denak pilatuta toki txiki eta zikinetan. Horrela, bada, bera ere gaixotu zen, oso larri gaixotu ere: sukar handia, hotzikarak,

buruko min itzela... gainera, hain zegoen nekatuta non ezin zen altxatu ere egin... Halako batean, kideek ezinezkotzat jo zuten mutikote hark bere onera bueltatzea, eta Ezkioko apaizaren etxean utzi zuten, baten batek zainduko zuelakoan edo, kasurik txarrenean, ehortziko zuelakoan. Elizgizon haren lehengusina Joakinak hartu zuen mutil ilehori haren ardura, norbaitek behar eta. Nola sendatu ondo ez zekienez, amari galdetu zion, Igartubeitiko Josefa andreari, eta hark erantzun gurbitzaren adaxkak bilatzeko basoan, eta, haiek txikituta, egosteko. Edabe hori hartu beharko zuen gazteak, biziko bazen.

Joan ziren egunak, asteak eta, are, hilabeteak; eta, pixkanaka-pixkanaka, uste guztien kontra, Niklaus suspertu egin zen. Ordurako, sinatuta zegoen Basileako Bakea bi herrialdeen artean, eta Gipuzkoa berriro ere bihurtu zen Espainiaren zati, Karibeko irla baten erdiaren truke (hori bazenekiten?). Suntsipena eta miseria hedatu ostean, frantsesek alde egin zuten, trukean zerbait utzita: Lorrenako gizaseme hura. Joakinak eta Josefak laguntza behar zuten ez baserria aurrera eramateko (ez ahulak zirelako, baizik eta horrelako etxetzar batean mila eta bat lan egin behar izaten direlako), eta mutilak nora joan ez zuenez, denek iritzi zioten egoki mutila haiekin geratzeari. Horrela, meatzari ohiak gerlari izateari utzi eta nekazari bilakatu zen.

Jakingo duzue, baserri batean egotea ez da gaur egungo txaletetan bizitzea bezalakoa; alde ederra dago! Baserrietan goizaldetik iluntzera egin behar izaten da lan: behiekin ez bada, ortuan; sagardo-ekoizpena ez denean, ardiekin... Hori bai, bizimodu lanpetu horrek sari galanta eman ohi du: benetako jakiak, aire osasungarria, bista ederrak... Gure mutila, baina, laster ohitu zen Igartubeitiko martxara, eta gauza asko ikasi zituen: landatzen, goldatzen, ereiten, iruten, erleekin konpontzen, behiak jezten... baita idazten ere! Horrez guztiaz gain, komunikatu ahal izateko, euskaldundu behar izan zuen, alemanez besterik ez zekielako (bueno, eta frantses apur bat ere bai). Horretarako, inguruko laguntza etengabea izan zuen. Adibidez, etxe hartan sei bat hilabete zeramatzanean, Josefak galdetu zuen ea nork hartua zuen sardea, eta lorrenarrak erantzun omen zuen: "Nik... laus". Denek egin zuten barre haren ateraldiarekin.

Era horretan, bertako beste biztanle arrunta izatera iritsi zen, eta haien zaletasun berdinak hartu zituen: mendira joatea (Izazpira, adibidez), inguruko herrietako ferietara hurbiltzea (Zumarraga edo Beasaina, esate baterako, nahiz eta hiriek Metz desatsegin hura gogorarazten zioten), Santaluzia errekan bainatzea, frontoian aritzea, erromerian abiatzea Kizkitza baselizaraino...

Urteak joan, urteak etorri, Joakina eta Niklaus ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten (garai hartan ez zen horren arraroa, ez pentsa), denak ilehori begi-urdirak. Jakina, sendiak une onak, ez horren onak eta txarrak ere bizi izan zituen, tarteka, edozein etxetan bezalaxe. Dena dela, nahiko ondo zihoakien guztia, harik eta 1808. urteko otsaila ailegatu zen arte.

Zer gertatu zen orduan? Bada, ordurako Frantziako Errepublika desagertu eta haren ordeztu Inperio bat sortua zela, Napoleon Bonaparteren eraginez... Napoleonek pentsatzen bide zuen ideia ona zitekeela Frantziako aurrerakuntza guztiak Europara esportatzea, eta

inguruko lurraldeak konkistatzeari ekin zion, Hego Euskal Herria barne. Beste gerra bat, beraz.

Igartubeitin ezin okerrago jaso zuten albistea, benetan arriskutsua baitzen haientzat: soldadu frantziarrak haraino iritsiz gero, zer egingo zioten Niklausi? Azken batean, legearen aurrean, bera ere haietako bat zen...

Euren susmorik txarrenak bete egin ziren: nor zen ezagutu bezain laster, Donostiako epaitegi militarra bidali zuten atxilo, desertorea zelakoan. Epaketak 5 minutu ere ez zuen iraun, baina epaia ezin gogorragoa izan zen: 20 urte kartzelan, Frantziako Errepublikaren (orain Inperioaren) armadatik baimenik gabe alde egiteagatik (hizkera militarrean, “desertatzeagatik”).

Niklaus (paper ofizialetan, Nicholas) Ifeko gaztelura eraman zuten, han zegoen-eta Inperio osoko espetxerik beldurgarrienetako bat. If Mediterraneo Itsasoko irlatxo bat da, ia arroka soil bat, Marseilla hiri handitik gertu. Hara heltzean, Niklausek pentsatu zuen gutxienez itsasoaren urdina ikusi ahal izango zuela, bere egoera tristeaz kontsolatzeko; baina usteak erdia ustel: bere ziegako leihotxoak patio gris ilun batera baino ez zuen ematen... Zenbat aldiz gogoratu zituen Gipuzkoa aldeko oihan sarriak, belardi hezeak, mendi zutak, erreasto gardenak eta baserri zuriak!

Azkenean, zorionez, zigor erdia baino ez zuen bete behar izan, 1815ean Napoleonek Waterlooko bataila eta harekin batera tronua galdu zituelako. Orduan, haren etsaiek Frantziako preso guztiak askatu zituzten; eta, horri esker, Niklaus etxera, Igartubeitira, itzuli ahal izan zen, betiko, senideen artera.